

TOKIKOM

mailope

Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberri

236. zkia. - 2016ko maiatza

ELKARRI MOKOKA: Andrea Etxarri eta Pello Azpiroz **ELKARRIZKETA:** Joxe Antonio Mikeo
LAUBURUA: Errenta aitortpena euskaraz **KUXKUXEAN:** Maiatzeko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

25 urte airean

Joana Ziganda (Oskotz)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Aralar irratiak mende laurdena bete zuen maiatzaren 2an. Urte guzti hauetan Lekunberriko irratiko estudioan lan egin duten zenbait lagunekin izan gara.

Ale honetan beste asmakizun bat proposatzen dizuegu. Erantzuna aldizkarian bertan topatuko duzue:

“Nor da Aralar Irratiko esataria gaur egun?”

Horra hor Atalluko Jakes Iturrioz Cruzek joan den hilean jasotako Denonartean Argitaletxearen liburua.

Zuk ere liburu bat nahi duzu? Parte hartu asmakizunaren erantzuna mailope@labrit.net helbidera bidalita.



Denonartean Argitaletxeak eskainitako liburuak.

Antsoenea
ARDI LATAAREN ESNE GORDINEZ
A. EGINDAKO GAZTA OINDUA

TT. 948 51 34 68... antsoezagazak@gmail.com Uztregi

1500ml

Atabal
okindogia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
salexitxak,
sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez



10 > Gure esku dago

Kriseiluz argituko dute maiatzaren 13ko gaua. Gure esku dago taldeak Lekunberriko plazan eta Azkaraten gaueko 21:30ean jarri dute aurtengo hitzordua. Hiru euroren truke kriseiluak salduko dituzte eta denek batera piztuko dituzte. Gainera momentu berean Artxuetatik Balerdirainoko mendilerroa argi-zuziekin argituko dute.

15> Nor da nor?: Argazki zaharrak gogora ekarriz.



16 > Joxe Antonio Mikeo

Arriben jaio eta bizi izan da beti Joxe Antonio Mikeo Lopetegi. Berekin garai bateko kontuetaz aritu gara.

27> Lauburua: Errenta aitortpena euskaraz.



28 > Olano landetxea

2009an ireki zuten Olano landetxea Miren Oterminek eta Iñigo Garmendiak. Geroztik dagoeneko penintsulako txoko ezberdinetako familiak pasa dira Errazkindik.

30> Kuxkuxean: Maiatzako zorion agurrak

31> Kontu txikiak



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzí eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Alfredo Dufur, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Esther Mikeo, Miguel Inda, Aralar Musika Eskola, Joana Ciganda, Uxua Huizi, Cristina Gutierrez, Joxe Mari Zabaleta, Vega Botello eta Mikel Azpiroz.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Mikel Azpilikueta.

TIRADA: 1.600 ale.

DISPERTSIOA, ISOLAMENTUA EGUNEROKO TORTURA.

Hogei orduko bidaiak, laguna, senidea bisitatzeko behar ditugun ordu amaigabeak, tortura latza bilakatzen dira.

Askok hilean behin egiten dute, beste batzuk gutxiagotan, baina bai ekonomikoki eta baita osasunerako ere bidaiak oso gogorrak egiten dira. Euskaldunok munduari astero 8,8 aldiz ematen diogu buelta gure lagun senideak hain beharrezkoa duten/ditugun bisitak egin ahal izateko.

Hauetako asko herritik milaka kilometrora egoteaz gain isolamenduan dira, hau da, 20 ordu zeldan bakarturik eta lau ordu patio ezin txikiago batean. 10 bider 5 metroko patioak, non euria, eguzkia, eta zuloz beteriko sare zatar baten azpian, beste kide bat edo birekin airea arnasteko, korrika egin, pilotan jolasteko... Gizakiak direla gogorazten dioten lau ordu dituzte.

Sevillako kartzelan aurkitzen den Asier Arzallusek gaixotasun kroniko degeneratiboa du eta badira 6 hilabete beharrezkoak dituen medikamentuak ez dizkiotela ematen.

Hau guztia tortura latza da, beste izenik ez du. Estatu espainiarrean isolamendua eta bakartzeak, egunero erabiltzen dituzte gure herritarrekin. Fisikoki eta gehien bat psikologikoki beraiekin amaitzeko erabiltzen dute.

Guk, kalean gauden herritarrok, beraien pauso ausartak babestu eta pairatzen ari garen bidegabekeri hau amaitzea lortu behar dugu. Honetarako herri mobilizazioak, enkarteladak, manifestazioak, elkartasuna eta gure babes guztia jaso behar dute. Politikariak mugitu behar ditugu, behingoz eskubide guztiak guztiontzat izan daitezten. Eskerrik asko apirilaren 17an, Bilbon egon zineten guztioi. Herriaren mobilizazioarekin lortuko dugu.

Euskal presoak etxera!!

Araitz-Beteluko presoek eskubideen aldeko taldea

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.

ESKERRIK ASKO

Eskerrik asko errefuxiatuentzako materiala biltzen lagundu diguzuen guztiei. Ez genuen espero horrelako arrakasta izango genuenik. Dakizuenez arropa, motxilak eta dirua biltzeko asmoa genuen eta arropari baita diruari dagokionez asko bildu dugu. Guztira 500€ eta 12 kaxa arropaz beterik lortu ditugu. Dirua errefuxiatuentzako ONG bati bidaliko diogu, arropa, kanpaina bati bidali genion eta motxilak berriz beste kanpaina bati bidali dizkiogu.

Beraz eskerrik asko berriro ere denoi zuen borondate onarengatik!!!

DBH 2-ko Ikasleak

Euskaltzaindiak sei euskaltzain urgazle berri izendatu zituen joan den hilean, tartean eskualdean ezaguna dugun Amaia Apalauza.

Zorionak Amaia!



asegurogintza



aseguru
aholkulariak

**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**

Telefonoa: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

Egin zaituz baskide!!

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

LARRAUNGO UDAL BATZARREAN “GARDENTASUNERAKO” OZTOPOAK AURKITU BIDEAN

Larraungo Udalak onartu egin zuen orain hilabete batzuk, EH Bilduren ekimenez, Udaleko alkate eta zinegotzien jardunerako konpromisoak eta neurriak zehazten zituen dokumentua. Aurkeztutako dokumentu horretan zenbait neurri planteatzen dira administrazio publikoa kudeatzeko garaian eduki beharreko irizpideen inguruan: gardentasuna, interes publikoa nagusi izatea, kargu publikoa alderdiaren edo norberaren xedeetarako ez erabiltzea, karguarengatik eduki daitekeen informazio pribilegiatua ez erabiltzea norberaren onurarako, gastu publikoaren kontrol zorrotza, eta abar. Apirileko batzarrean, berriz, neurri horien jarraipena eta betetze maila neurtzeko batzordea osatu zedila eskatu genuen. Eta hau barne antolaketarako udal batzordean landuko da, EH Bilduk eta Larraungo Elkartekoek alde bozkatu ondoren. Larraundarrak taldeko kideak, gaur egun alkatetzan daudenak, kontra agertu ziren. Nahiz eta bere garaian neurriak planteatu zirenean abstentziora jo. Horrek jadanik ikusarazten digu talde guztiak ez dugula borondate bera Udalak hartutako konpromisoak betetzeko. EH Bildutik pentsatzen dugu Larraungo bizitza politikoa eraberritu egin behar dela eta herritarrak erabakien erdigunean jarri behar ditugula, eguneroko jardunaren protagonista bihurtuta. Horregatik, Larraungo Elkarteari eskatu nahi diogu, itun bat izan arren alkatetzan dagoen taldearekin, aurrera egin dezala neurri eta konpromiso horiek guztiak betetzekoak izan daitezten.

LARRAUNGO EH BILDU

Joandakoak Gogoan

“Zuhaitz bezala lurrean, kantuak bezala haizean...”



MARIA URKIZU (102 urte)

Apirilaren 3an hil zen Lekunberrin.

JUANITO ETXARRI (84 urte)

Apirilaren 7an hil zen Lekunberrin.

Familiako bi pertsona oso garrantzitsu joan zaizkigu gure ondotik:

Maria, gure ama eta amona. Eta Juanito, senarra, aita, koinatua, osaba.

Biek eman digute euren ontasun bizitzaren oparia.

Momentu on asko eskaini dizkigute eta beraiekin gozatu dugu.

Eurekin bizitako momentu zoriontsu asko daude eta esaldi asko utzi dizkigute gure gogoetan... Bidean itzal handia utzi dute.

Eskerrik asko bioi horren zoriontsu egiteagatik.

Eskerrik asko guregatik egin duzuen guztiagatik.

Eta eskerrik asko zuei, lagun eta bizilagunei, momentu hauean horren ongi babestu gaituzuelako.

Beti izanen dira gure bihotzetan.

Etxarri familia

Bidali zure heriotz-agurra
mailto:labrit.net e-postara edo
dei ezazu 638 652 339 telefono
zenbakira eta agurtu itzazu zendu-
takoak aldizkariaren bitartez.

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Joana Ziganda (Oskotz)



*Espainia aldean
urak mugituak,
Lehendakari nor ote?
daude larrituak.
Ohikoak lapurretak
eta delituak.
Korruptzio, diru ta
gezur zurituak*

*Ur mugituak heldu
ez daitezten berta,
gu guztion eskutan
dago aldaketa.
Herri aske euskalduna
izateko beta,
gure olatua dator
ur berriz Beteta*

Aitor Irastorzarentzako puntu:

Ekainaren erdian Larraungo Eguna

Oinak:

batera, artera, aurrera, izaera

Doinua: Iragan egun batez

- 6 -



UDABERRIKO AZOKA

Bigarren eskuko udaberriko azoka izanen da maiatzaren 28an eta 29an Lekunberriko frontoian. Goizeko 10:00etatik iluntzeko 20:00ak arte liburuak, arropa, jostailuak eta bes-telako hamaika produktu izanen dira salgai prezio oso baxuetan.



XABOI NATURALA

Joan den hilaren 20an 14 lagun elkartu ziren xaboia egiten ikasteko. Larraungo Euskara Batzordeak eta Larraungo AEK-ak antolatutako tailerra izan zen. Yolanda Villanueva eta Joseba Artzetlutsek garbigailurako xaboia eta leungarria etxean bertan nola egin daitekeen erakutsi zieten bertaratutakoei.



BERTSO-AFARIA AZKARATEN

Maiatzaren 14an bertso-afaria egingen dute Azkarateko Balerdi elkarteak. Julio Soto eta Jexux Mari Irazu arituko dira bertsoetan. Txartelak dagoeneko salgai daude Beteluko Ostatuan eta Arribeko Surtidorean.

Klima aldaketa



Pello Azpirotz

lepa zer moduz Andrea? Udaberrian sarturik gaude negu arraro xamar bat pasatu ondoren. Aurtengo negua ez dugu izan normalean espero den bezalakoa: elur gutxi, nahiko eguraldi ona... Klima aldaketaren ondorioa izango al da? Gai honen inguruan hitz egiteko asmoarekin natorkizue oraingo honetan. Giza jarduerak eta gu bizi garen sistema kapitalista-kontsumistak lur planetari izugarritzko kaltea eragiten dio. Berotegi efektua sortzen dute gas ugariaren isurketek. Horien artean gehien hitz



Andrea Etxarri

Udaberri on Pello! Dokumentala ikusi berri dut, eta nahiz eta nire ustez zenbaitetan nahiko tonu konspiranoikoa ematen dion, gai batzuen inguruan ikuspegi global bat hartzeko interesgarria dela iruditzen zait. Ildo nagusi batzuk aipatzearren bi nabarmenduko nituzke: baliabideen kudeaketa eta superpopulazioa.

Alde batetik, zuk esan bezala, bai maila pertsonaleko eguneroko ekin-tzak (garraio moduak, erabili eta botatzeko ohiturak ekiditea, ur eta ener-

“Egoera honi buelta emateko ezinbestekoa da bizi eredua aldatzea”

“Beganoa ez den elikadura mota bat izatea ezinezkoa izanen da etorkizun batean”

egiten dena CO2 deiturikoa da, baina metanoa ere ez dugu ahaztu behar. Hau baita berotegi efektua eragiten duen gas nagusia, CO2-ak baino gehiago berotzen baitu planeta. Dugun ustea da klima aldaketaren eragile nagusiak bai garraiobideen kutsadura eta industriaren kutsadura direla baina bada beste eragile oso garrantzitsu bat: abeltzaintza industrial. Behien eta txerrien purinek metanoa sortzen dute eta oso kopuru handietan gainera. Munduko populazioa gorantz dijoa oso azkar eta oraingo sistema ekonomiko honetan ez dago lehengai nahikorik eskaera maila honi aurre egiteko.

Egoera honi buelta emateko ezinbestekotzat jotzen dut daramagun bizi eredua aldatzea: aisialdia, jateko ohiturak, lan egiteko moduak, garraiatzeko moduak... Honetarako kontsumo maila jaitsi beharko litzateke arlo guztietan (arropa, teknologia berriak...). Daramagun erritmo hau ez da jasagarria eta zenbait ikerketek baieztatzen dute. Petrolioa eta gasa agortu egingo dira mende honen bukaerara iritsi baino lehen.

Bakoitzak bere tokitik zerbait egin dezakeela ziur nago, arazo honi denon artean egin behar diogu aurre, gure onurarako eta etorkizunean egongo direnentzat. Eta bukatzeko, hementxe uzten dizuet gai honen inguruan oso interesgarria iruditu zaidan azken dokumentalaren linka: <http://www.area-documental.com/player.php?titulo=Cowspiracy:%20E1%20Secreto%20de%20la%20Sostenibilidad>



gien erabilera egokia egitea...) zein maila global eta instituzionalean baliabideen kudeaketa egoki bat (diru laguntzak errentagarriak ez diren zaborren gestiorako, jasagarritasun proiektuak, hezkuntza eta ingurumenarekiko kontzientziazio plan sakonak ...) ezinbestekoa da. Tamalez interes ekonomikoek zuzenduriko gizarreak batzuetan ez ditu bere lehenetsuen artean baliabideen kudeaketa egokia edota jasagarritasuna. Beharrezkoa da joera hori gelditzea, erreza ez bada ere.

Beste aldetik, superpopulazioa dugu. Baliteke orain arteko garaietan, biztanleri kantitateari zegokionez, janari talde ezberdinetako produktuak guztientzako nahi adina egotea. Hala ere, munduko populazioaren igoera azeleratua eteten ez den bitartean, beganoa ez den elikadura mota bat izatea ezinezkoa izanen da etorkizun batean, haragi kilo zein eratorritako produktu bakoitzak suposatzen duen baliabide kantitateagatik gehienbat.

Beraz, gutxienez ez dezagun ahaztu pertsona bakan guztiek munduko leku bakoitzean egiten dugun ekintza orok gauzak asko alda ditzaketela. Egin dezagun gure esku da-goena, gauzak eskuetatik joan aurretik.



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Harremanak, min iturria

Gizakiok, animalia sozialak gara, alegia, taldean bizitzekoak. Bakar bakarrik bizitzea ia ezina egiten zaigu nagusi gehienoi eta hurrek ezina dute. Txiki txikitatik harremanak behar ditugu beste pertsona batzuekin, familiakoak zein kanpokoak. Horregatik energia eta lan handiak jartzen ditugu besteekin ditugun harremanetan. Baina, zergatik bihurtzen dira, maiz, min iturri?

Amaren barruan sortuak garenean, garatzen dugun lehenengo organoa, bihotza da. Beste edozein baino lehenago garatzen dugu, bosgarren astean dagoeneko. Garuna baino askoz lehenago garatzen da eta 40. astera arte, amaren bihotzetik oso gertu dago. Emakumeak izan zaitezke gainera, alde honetatik, bi bihotz elkarren ondoan izaten zuen bizitzetan behin baino gehiago. Gizonezkook, amaren barruan soilik bizi dezakegu esperientzia hau gure amaren barruan baina ama bihurtzen diren emakume guztiek, haien amaren barruan bizi zutena berriz biziko dute haurra haien baitan sortzen denean.

Jaiotzen garenean, amaren barruan bederatzita hilabetez bizi ondoren, oraindik amaren parte bat sentitzen gara, seigarren hilabetera arte, gutxi gorabehera eta poliki poliki hasten gara amarengandik aldentzen gu geu ere norbait gabela sentitzeko eta bizitzeko. Hortaz, jaiotzean ama behar dugu ondoan, amaren besoak eta maitasuna, amaren bularra eta zaintza eta amaren begirada. Baina hauek ez badira guztiz ongi ematen, gabeziak sortuko dira gure barruan eta gabezia horiek arrastaka eramango ditugu bizitza osoan. Gabeziak min iturri izango dira, guk ongi ulertu gabe, zer gertatzen zaigun.

Ama eta haur jaioberriaren arteko harremana, haurarentzat bizi honetan duen lehenengo harreman pertsonala da eta handik aurrera markatuko ditu



“Txikitik hainbat sentimendu eta oroimen pilatzen ditugu gure gorputzaren zeluletan”

jaioberriaren harremanak. Amaren ondoren, aita dator, anaiak, arrebak edo ahizpak, familiako gainerakoak,... Eta hauekin izango dituen bizipenek ere moldatuko dute hauraren bizia eta izaeraren parte handi bat nagusitzean.

Gure gurasoon lehenengo umea izan garen gehienok, bigarrena iritsi denean

egoera mingarria bizi izan dugu, ordura arte bakarrik izan garelako eta dena, gutxi izan denean ere, guretzat izan delako. Baina bigarrena iristean, gurasoon begirada, zaintza, maitasuna,... konpartitu behar ditugu. Ume nagusiarentzat, maiz, oso egoera mingarria bihurtzen da hau eta maitasuna eta gorrotoa sentitzen ditugu aldi berean etorri berrira denarekin. Egoera konplikatzen da, ume gehiago jaiotzen direnean, nagusiak gero eta leku gutxiago daukala sentitzen baitu. Era berean, bigarren, hirugarren,... edo zortzigarren tokian jaiotzen denak ere senti dezake, hasieratik gurasook ez diotela nahikoa ematen, are gutxiago, senide asko direnean.

Hortaz, txikitik gure baitan pilatzen ditugu hainbat sentimendu eta oroimen gure gorputzaren zeluletan. Hutsunea eta gabezia, amorruek, tristura, inbidia, jelsiak, segurtasun ezak, beldurak... eta gure baitan eta izaeran eramaten ditugu nagusitzean. Hauek guztiak azaleratzen dira nagusi bezala harremanak dauzkagunean beste pertsonekin. Zailtasunak eta minak bizi ditzakegu familiakoekin zein, lagunekin, auzokoekin, lankideekin, autoritateekin, e. a. Konturatu gabe, txikitatik konpondu gabe dauzkagun arazoak nagusien mundura eramaten ditugu. Gure bizitzetan, behin eta berrero, gu ohartu gabe, errepikatzen dira ume garaiko konfliktoak eta minak. Eta harremanek segituko dute min iturri izaten, gure txikitako arazoak landu arte.

Jakina, ez dira bakarrik, haur gineneko bizipenak gure konflikto eta minen iturria, familia barruko leialtasunak, ikasitako izaera okerrak, gizarteak planteatzen dizkigun zailtasunak eta beste zenbait, badira ere, min iturri handia. Baina, nagusietako bat haur gineneko bizipena da eta osasun psikologikoa berriz eskuratzeko landu beharra dago.



Apirileko Feria, postureoaren gailurra?

Sevilla hitza entzuten dugunean, ziu-rrerrik, Aste Santua eta Apirileko feria etorriko zaizkigu burura. Sevillarrek egutegian gorritz markatutako bi datak. Hiria paralizatu egiten da bi aste berezia horietan. Bi festa hauen inguruan estereotipo mordoa entzuten ditugu. Estereotipo batzuek, ordea, ez dute bat egiten errealitatearekin. Beste askok, berriz, bai.

“Feria de Abril”, flamenko jantziak eta flamenkoa, kasetak... Askok Sanferminen konparatu izan dute festa hau. Hori esaten dutenek ezer gutxi dakite Apirileko Feriaren inguruan. Antzekotasun bakarra dagoela aipatzen ausartuko nintzateke: biak dira hiriaren festa nagusia.

Aurten apirilean erabat sartuta gaude-la ospatu da Feria, astelehenetik igandera. Lehenengo eguna “noche del pescaíto” bezala ezagutzen da. Behin eguzkia ezkutatuta eta asteleheneko gaueko hamabietan, Feria osoko argiak pizten dira, aurten ia 350.000 bonbilla. Ikusmin handia sortzen du honek eta horrekin ematen zaio hasiera aste berezi honi. Sanferminetako txupinazoaren pare? Batzuek halaxe esanen lukete.

Baina parekotasun gutxi Iruñeko festa nagusiarekin. Sevillan 275.000 metro karratuko esparru batean mila kasetak baino gehiago kokatzen dira. Pentsa! Mapa eta guzti behar izaten da bertan zer edo zer aurkitzeko.

Kaseta pribatuekin eginen dugu topo eta gonbidapenik gabe ezinezkoa da hauetara sartzea. Txikiak izan ohi dira, eta, orokorrean, barruko jendeak estereotipo gehienei erantzuten die. Bestetik badaude, ordea, kasetak publikoak (Sevillako auzoen kasetak, sindikatuenak –UGT, CCOO, USO- eta alderdi politikoaren kasetak –PSOE, PP eta Alderdi



“Beti saldu izan digute Feria postureoaren gailur gisa”

Komunista-). Bitxikeria gisa Alderdi Komunistaren kasetak aipatzeko modukoa da. Ohiko kasetak baino, ezagutzen dugun txosna baten antza handiagoa baitu: musika estilo ezberdinak, barruko dekorazioa, bertan biltzen den jendea...

Beti saldu izan dute (digute) Feria postureoaren gailur gisa. Gorbatak, trajeak, flamenko jantziak, zaldi dotoreak... dira protagonista. Sevillarren topikoak erabat islatuta gelditzen dira hemen. Hala ere ezta korbata edo flamenko jantzirik behar Feriaz disfrutatzen. Batzuek kasetak pribaturik gabe ongi pasatzea ezinezkoa dela esanen duten bitartean, beste askori kontrakoa entzuten diogu. Bertan txanpon baten bi aldeak ikus daitezke.

Txapon horren alde batean daude Gorbatak eta flamenko jantziak ERA-BAT beharrezkotzat jotzen dituztenak. Hauentzat zaldiak nahitaezko elementu dira ferian. Dotoreziaren sinonimo. PACMA alderdiak zaldien errealitatea salatu du: “Deshidratazioa dela eta, zaldia erabat ahulduta zegoen. Dardarka hasi eta lurrera erori da”. Albaitariak arduratu ziren eta haien lanari esker zaldia bizirik dago, alderdi animalistak adierazi duenez. PACMAK urteroko historia errepikatu dela jakinarazi du: “Ez da kasu bakarra eta honekin bukatzeko lan eginen dugu”.

Hitz gutxitan, Sevillakoak ez diren andaluziar askorekin hitz egiten dugunean ikuspegi argia entzuten diegu ferien inguruan: “Sevillako feriak ez du zirikusirik Andaluziako gainontzekoekin. Beste feriekin konparatuz hemen postureoak ohi baino indar handiagoa dauka. Honek ez du zertan izan behar Andaluziaren irudi.”



“Kriseiluz argitutako gau magikoa”

Maiatzaren 13ko gaua, berezia izanen da gurean. Gure esku dago mugimenduko antolatzailleek ekimen berezi antolatu dute egun horretarako.

Gure Esku Dago mugimenduko antolatzailleak martxan jarri dira aurten ere eta maiatzaren 13rako “Kriseiluen Gau Magikoa” antolatu dute. Gaez izanen da ekimena Lekunberriko plazan eta Azkaraten. Gainera, aldi berean, Malloetako gailur nagusienak (Artxuetatik Balerdiraino) argi-zuziekin argituko dituzte.

Hiru urte dira Gure Esku Dago ekimena sortu zela. 2013an aurkeztu zuten publikoki baina nondik nora sortu zen ulertzeko zenbait urte atzera joan behar genuke.

2007an Idiazabalen (Gipuzkoan), kirol arloan euskal selekzioaren alde egiteko talde bat sortu zuten, Nazioen Mundua. Euren egin zuten Gazta Zati Bat dokumentala besteak beste. Mugimendu horren inguruan, pixkanaka, arlo ezberdinetako jendea batzen hasi

zen eta Goierrin indarra hartu zuen. Zenbait alderditako ordezkarien babesa izan zuten eta pixkanaka, Eskozia eta Kataluniako eragileekin harremanak estu-tzen hasi ziren. Kideek hasieratik ideia bera defendatu zuten: “Erabakitze eskubidea oso oinarrizko eskubidea da. Nazio bat gara, erabakitze eskubidea daukagu eta herritarron ordua iritsi da”.

Politikariekin gaia lantzeak, 2011ko urriaren 17an Donostiako Aiete Jauregian egindako Nazioarteko Bake Konferentzia ahalbidetu zuen. Bertan, Euskal Herriko nahiz nazioarteko politikari eta ekintzaile ezagunak bildu ziren. Oihartzun handia izan zuen bilkura hark eta handik hiru egunetara ETAK borroka armatua behin-betiko uzten zuenaren berri eman zuen. Handik aurrera dinamika Euskal Herri osora zabaldu zen indar handiz. Sentsibilitate eta arlo

ezberdinetako jendeak bat egin zuen Gure Esku Dago gizarte mugimendua- rekin eta herriz herri ekimena aurrera eramateko taldeak sortzen hasi ziren.

Baina geroztik, mugimendu sozial be- rriak bere aurrekariaren baloreei eutsi die: “Erabakitze eskubidearen aldeko dinamika herritarra, animatzea eta par- te-hartzailea izan nahi du. Erabakitze- ko eskubidea gauzatzea du helburu eragile eta erakundeekin elkarlanean eta to- kian tokiko borondateari helduta”.

Gurean 2014ko ekainaren 8ko giza ka- tea antolatzeko bi talde sortu ziren. Betelu eta Araitzen bat eta Lekunberri eta Larraunen bestea. Durango eta Iru- ñea giza kate baten bidez lotzea zen or- duan plataformak herritarrei jarri zien erronka eta arrakasta ikaragarria izan zuen. Antolatzaileen arabera, Euskal Herrian inoiz izandako herritarren mu- gimendu jendetsuenetariko bat izan zen.

110. kilometroan osatu zuten eskual- deko herritarrek giza katea. 450 lagun joan ziren egun hartan Itzaraino. Guzti- ra, 123 kilometroko giza katea osatzea lortu zuten Euskal Herriko txoko ezber- dinetako 150.000 herritarrek.

2015eko urtarriletik apirilera bitarte Larraungo herrietan “Jostunak” doku- mentalaren hainbat emanaldi eskaini zituzten. Antolatzaileen arabera, “do- kumentalaren bidez, Gure Esku Dago herri mugimenduaren ordura arteko ibilbidea eta amankomuneko helburu hori lortzeko beharrezkoa den guztion inplikazioaren garrantzia azaldu nahi izan genuen. Bertara gerturatu zi-



ren ia 150 lagunek eskainitako esker onek, ondorengo hilabeteetan zetozen erronkak indar berrituekin garatzeko beharrezkoa zen indarra eman ziguten”.

Iazko erronka Euskal Herriko hiribu- ruetan oihal zatiz jositako hauteston- tzi erraldoiak sortzea zen. Horretarako aurretik antolatzaile eta herritarrek lan handia egin zuten, oihalak saltzen eta apaintzen. Ehuntze Eguna antolatu zuten bai Lekunberri eta baita Bete- lun ere. “Ehuntze Egunean herritarren borondateak josten bukatu genuen. Iruñeko Ekitaldi Nagusiari begira, es- kualdeko herri guztietako oihal zatiak elkarren artean jostearen konpromisoa hartu genuen. Gero ekitaldi nagusian eraiki zen hautestontzi erraldoia osa-

tzen zuten Nafarroako herrien artean jositako oihal mosaikoetako bat presta- tu genuen”.

Larraundarrek Lekunberriko trinkete- an prestatu zituzten oihal zatiak euren mezu, marrazki eta ametsekin eta ondoren Urko Aristik gidatutako erabakitze eskubidea- ri buruzko mahai inguru bat egin zuten Zelai Nikolas (Gure Esku Dago), Maialen Etxeberria (Ernai) eta Laura Perezen (Ahal Dugu) partaidetzarekin.

Beteluarrek eta araitzarrek, lehenik fes- ta sinboliko bat ospatu zuten martxoan Arribeko frontoian. Pilota partiduak, musika, jan eta edana eta oihal me- troen salmentarekin batera mural bat osatu zuten. Handik gutxira triki-poteo



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.



bat ere egin zuten Atallutik Betelura eta Ehuntze Egunean oihal metroak prest utzi zituzten.

Ekitaldi nagusiaren egunean Iruñeko Alde Zaharrean animazio eta jarduera ezberdinetan parte hartu zuten bertara hurbildu zirenek. Eta ondoren, zezen plazan oihal guztiakin batera osatutako hautestontziaren bidez erabakitze eskubidearen aldeko aldarrikapena egin zuten.

Antolatzaileen arabera, Gure Esku Dagoen orain arteko jarduera eta batez ere arrakasta, mugimenduaren espiritu ireki eta eraikitzaileari eta sortzen duen ilusioari esker izan da.

Kriseiluen gau magikoa

- 12 -

Iazko oihalak alde batera utzita, aurten kriseiluak izanen dira protagonistak. Kriseiluez argitutako gau magikoa izanen da maiatzaren 13koa. "Lekunberriko plazan eta Azkaraten elkartuko gara gaueko 21:30ean. Kriseiluak 3 euroren truke salduko ditugu. Momentu horretan bertan, Malloetako gailur nagusienak (Artxuetatik Balerdiraino) argi-zuziekin argituko ditugu, baldin eta eguraldiak aukera ematen badigu, ikuskizun paregabea izango delakoan gaude, perspektiban ikusiz gero. Ekitaldi honen bidez, bi bailaretako jen-

dea elkartu eta gaur egun erabakitzeko eskubidea den ametsa erein eta giza katean nabarmen izan zen ilusioa berpiztu nahi ditugu, kriseilu eta argizuzien argiek sinbolizaturik".

Orain arte bezala, ekainean Gure Esku Dago plataformak Euskal Herriko hiriburuetan ekitaldi nagusi bat antolatuko du eta aurrekoak bezain arrakatsuak izatea espero dute.

Hala ere, Larraungo Gure Esku Dago taldearen erronka nagusia 2017ko

ekainean dutela aurreratu digute: "Hautestontziak jarriko ditugu herrietan, larraundarrek nahiko genukeen estatus politikoa adieraz dezagun, denon artean adostuko dugun galdera baten bidez. Helburua ahalik eta parte hartze handiena lortzea litzateke. Horregatik, momentu honetatik bertatik aurrera lan egiten hasi behar dugu auzokideak motibatuzko. Animo! Azken txanpan sartzeraz goaz eta gure eskuetan dago etorkizuna!".



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arbe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA



Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

OKM
ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, A/IJ. Tfnoa: 609 130 555

Gure konpromisoarekin, pieza guztiak bere tokian

2015eko Errentaren eta Ondarearen Aitorpena. 2016ko apirilaren 20tik ekainaren 24ra

* Campus Arrosadia (Pamplona-Iruña).
Universidad Pública de Navarra / Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Zure aitorpena online aurkez dezakezu nafarroa.eus atarian, eta entitate laguntzaileen 499 arretarako guneetan nahiz Ogasuneko bulegoetan (hitzordua aldeztu aurretik eskatuz)

948 50 51 52 Zergadunari erantzuteko telefonoa

NAFARROAKO
OGASUNA



HACIENDA
NAVARRA

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Jesús Alonso palentziarrak irabazi du Angel Urrutia poesia sariketa

Angel Urrutia poesia sariketaren XVIII. Edizioa egin zuten joan den apirilaren 10ean Lekunberriko Aiestaran Hotelean. Jesús Alonso izan zen saritutakoa “La tierra deshabitada” poesia lanagatik. Landa eremuan giroturiko poemak bildu ditu lan horretan. Besteak beste, egileak iraganarekiko nostalgiairen gaia lantzeko erabilitako estiloa nabarmendu zuten epaimahaikideek.



Musika eskolen arteko egonaldi musikal eta kulturalak

Apirileko bigarren asteburuan, Vilafranca del Penedésko “Clau de Sons” musika eskolako 25 ikasle eta 3 irakasle guzuek izan ziren. Aralar Udal Musika Eskolarekin batera antolatutako egonaldia izan zen. Musika eskolak diharduen eskualdeko herri ezberdinetan banatu zituzten, 14 familiek hartu baitzituzten euren etxean.

Astebururako prestatutako programa, Leitzan egin zen entsegu batekin hasi zen. Baina musikaz gain euskal kultura ezagutzeko aukera izan zuten, adibidez, Peru Harrira eta Mendukilora egindako bisiten bidez.

Igandean, Leitzan bi musika eskoletako ikasleek kontzertua eskaini zuten 200 ikus-entzuleren aurrean eta bazkaldu ondoren agurtu egin zituzten. Maiatzeko lehenengo asteburuan hemengo txanda izanen da. Aralar Musika Eskolako 35 ikasle joanen dira Katalunia aldera.



Kulturari eskainitako hilabetea

Kultur eskaintza zabala izanen da hilabete honetan Lekunberri eta Larraunen. Maiatzan Kultura egitarauaren baitan hitzaldiak, antzerkia, kontzertuak eta bestelako hamaika jarduerak prestatu dituzte. Egitarau osoa ikusgai Agendan (31. orr.).




CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

<< Nor da Nor?



**Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?**

Horra hor iritsi zaigun hurrengo argazkia!

Erantzunak hurrengo alean kale-ratuko ditugu!

Atal berri honekin zuen etxeetako kutxetan dituzuen garai bateko argazkiak berreskuratu nahi ditugu.



Joan den aleko argazkia Arribeko festetan ateratakoa zen. Ezkerretik eskunera eta goitik behera: Manolo Elordi, Joxe Mari Urdanpileta, Juan Antonio Garaikoetxea, Jose Garcia, Jose Joaquin Gorostegi eta Luis Mari Lopez

- 15 -

Bidal iezaizkiguzu zure argazkiak denon gozameneko mailope@labrit.net helbidera edo 638 65 23 39 deitu eta kudeatuko dugu.

**GRUPO TANATORIO
IRACHE**
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

**urrutia**
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

**GALBURU** eco


Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldazaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42



“Arribeko zentraletik iristen zen argi indarra etxera”

- 16 -



Joxe Antonio Mikeo Lopetegi Arriben jaio zen eta han bizi izan da beti. Herria bera baino gehiago, bizimodua aldatu da eta berarekin garai bateko kontuak ekarri ditugu gogora.

Joxe Antonio, zu ze etxetan jaio zinen?

Txusenean, nei deitzen dite “Txuse”, etxengatik. Hoi da baserri bet hortxe aurrean dau-na.

Eta etxe hartakoa zein zenuen ama ala aita?

Etxe hoi zen herederatue bezela, atten ama baserri hortakoa zen. Ne atten ama Beutea joana, harea ezkondu zen. Ta geo ne atte be aman jaiotetxea etorri zen.

Baina zure aita Beruetekoa zen orduan?

Bai, atte Beutekoa, Beuten jaioa. Jose zun izena.

Eta zure amak?

Micaela. Hemen bada barrio bat esaten die-na Uba. Ama horko baserri batean bizittue zen, malkorrean.

Zuek zenbat anai-arreba zineten?

Zazpi. Ni laugarrena. Zaharrena zen Ramon, gero Miguel, Bautista, ni, Patxi, Gregori eta Mari Tere. Ilara luzea, oain ez dao holako ilaraik! [Kar, kar, kar].

Orduan Txusenean zenbat lagun bizi zineten?

Zazpi senidek, atte ta ama, da ezautu nittun hiru osaba solteroak hor. Ze gurutzea atte ta amantzako! Amantzako sobretodo.

Eta aitak zertan egiten zuen lan?

Baserrin! Behiek eta ardik izautu nittun nik han.

Esne behiak?

Bai, ez oain bezelakoak, biño bizimodue nonbatte han ateatze zuen.

Abereak Aralarra igotzen zituzten?

Ez, guk hemen bertako mendi hota ateatzen giñuzen beti. Aralarra ta ez ginen joaten. Esnea saldu, da gue etxean gazta de asko eitten zuen.

Argia betidanik ezagutu duzu zuk etxean?

Bai beti. Herrin bazen zentral ttiki bat da handik etortzen zen. Indarra juxto antzean zun, beño ematen zien argie Araizko herri guziri.

Eta ura?

Ure kaskadatik etortzen zen, hemen goran zien deposituk. Nik ure etxean oso gatzetatik ezautut.

Eta zu txikia zinean nolakoa zen Arribe?

Herrie ordun? Lual 300dik gora laun biziko ginen, ze ni ttikie nitzela, denak be etxean bizi zien, fabriken asuntoa gero hasi zen, nik hamasei bat urte nittunean. Gero hasi zien gazteak eskolatik atea ta fabriketa joaten.

Zure haurtzaroan zertara jolasten zenuten?

Gu normalean pilotan plazako etxen paretan kontra ta hola, pote-potean da...

Gaur egun ez zara Txusenean bizi...

Ez. Ez etxe hau ein giñun da Elostabarrena jarri giñion izena. Hau leno zen behien kooperatiba bat, ne anai zaharrenak eta beste bost soziok o jarritakoa. Beño zona hau oso nekoso da, dena aldapa da ta azkenen uztea pentsatu zuen.



Garai batean herritarren artean zer moduzko giroa zegoen?

Ona. Normalen ongi ematen ginen. Oso herri lasaie bizitzeko.

Eta Atallukoekin?

Bueno pikek o zerbatte izaten zen, beño hola gauze serioik ez.

Garai batean lursail bakoitzak bere ize-na izaten zuen...

Bai, belaze bakoitzek berea: Malsoro, Osinbeltza, Putzu urdiñe...

“Arkumeak hazten zien Gipuzkoa pasatzeko”

Hemen auzolanerako ohiturarik bazen?

Bai bai. Ohitura haundie lenao, bideak mantentzeko o labaderoa o... Beño hoi de joan da galtzen.

Ze urtetan jaio zinen zu Joxe Antonio? 1939an.

Gerra Zibilar buruzko kontuetaz hitz egiten al zuten gurasoek?

Atte alkate omen zegoan. Attek kontatzen zun eun batean, Uba esaten diun hortan borda bat bazuen beak, da han lanen ibili ta gero etxea etorri ta batzuk eskopetakin aurren hartu omen zuen. Kontu serioa. Gerra denbo hue oso tris-tea izan zela esaten due.

Eta gerra ondorengo errazionamendu garaietaz oroitzen al zara?

Hoi bai akordatzen naiz. Ze mixerie e!

Gosea pasa zenuten?

Ez, gosez ez ga eondu. Goatzen naiz, hemen ondoan errota zen, Errota Txiki. Ta etorri behar zienean ikustea errotan zer zaukean o zer etzaukean, zauzkien zaku guzik hartu ta gure soroa ekartzen zuen gari tartean da arto tartean gordetzea. Abisatzen zien norbatte etorri behar zuela ta... Errota hartan bizi zien anai-arreba solteroak, Camilo ta Raimunda.

Eta estraperloan ibiltzen al zen hemengo jendea?

Ez. Hemen bazien baserri bateko bi mutil pasatzen ibiltzen ziela esaten zuenak, beño ez dakit. Hoi frontieran izaten zen. Beño hemendik Gipuzkoa de galazi zegoan e!

Baina abereak saldu eta erosiko ziren...

Bai, eaman itten zen, beño gordeka ta tipo txarrean. Arkumeak hazten zien Gipuzkoa pasatzeko. Behin pasaz keo animalie libre gelditzen zen. Hemendik mendiz askotan joaten zien, gaeuz normalean.

Aizu! Eta emakumezkoak nola janzten ziren?

Familikon bat o hiltzen bazen lutoa eamaten zuen. Ta bestela normal, beño galtzakin etzien joaten. Galtzana asko gerogokoa da e! Ta galtzakin hasi zien komentarioa besteik ez herrin!

elkARRIZketa:

“Elizea sartu ta gizonezkoak denak alderdi batean ta emakumezkoak bestean”

Eta gizonezkoak?

Guk erabat galtza urdiñe ezautu du. Pana de bai beño urdiñe gehigo. Ta oinetakoak normalean zatak. Esaten zien zata zorropotonak eta zata xalak. Gomazkoak zien bik. Ta iandetan hobe, o gutxinez garbigoa o... [Kar, kar, kar].

Tabernarik bazen herrian?

Bai tabernai esaten zien Bernardonea. Astez gutxi joaten zien, iandetan gehiena.

Baina emakumerik ez zen sartuko!

Ez. Marka da geo e! Hoi hoi xelebrea den mundu hau e!

Eta dendarik bazen?

Bai, denda, estankoa ta karnizerie de ba-giñun. Nik oain e esatet herriko denda mantendu ein behar dela ta hortako ein behar dena da kontsumo pixkoat.

Baina garai hartan gehiena etxekoa izango zenuten?

Bai, txerrik, oiloak, batza... Ordun dena baserrie zen ta gehiena etxekoa. Obie da taloa de etxean eitten zuen. Lehenbizi garie errota ttikire eraman, han iriñe in da geo labea bazen gue baserrin da han eitten zen.

Zenbat ogi egiten zenituzten txanda bakoitzean?

Zortzi bat. Holaxeko obi kozkor batzuk. Ta obi ona e!



Erljiioak presentzia handia zuen orduko herritarren egunerokoan.

Hemendik Tolosara ere askotan joango zineten...

Atte Tolosako ferire joaten zen lanbetero, asko gustatzen zitzaion. Han launekin bazkaldu ta gero autobusean, Atalloarran, buelta.

Eskola non zenuten?

Herrin bertan. Ta hortik aurrea ez giñen iñoa joan. Han izaten zen mutillek, denak, Arribekoan ta neskak Atallokoan. Hoi de umetatik bexi ziguen, ta apezak berriz ze esanik ez! Elizea sartu ta gizonezkoak denak alderdi batean ta emakumezkoak bestean. Ta deskuidoan nahasik ikusten bazittun: “eh txi-txi!”.

Maisua ala maixtra zenuten?

Maixue, guk maixue izandu ginun beti. Eskolan dena erdaz ta halare ez ginun ikasi! Seko erdaldune zen. Rosario izena zun.

Eta zer moduzkoa zen?

Zorrotz antza esaten zuen, beño gukin beharko. Ni behintzat oso burugogo-

rra izandu naiz. Harek guri jo ez, gure aurretik eon zenak bai jo dezentetan. Guri ordu pare bat gehigo eskolan eonazten ziuten o kanpoa atea ta paretan kontra beide jarri... Denetik eakusten zuen pixkoat. Nik eskola gutxi dut ta geo kontuatze za ze beharrezkoa den. Ni hamalau urte arte joan nintzen eskola. Ta geo soldaduskea joan arte baserrin lanen.

Apeza zein zenuten?

Jesus Saldise, gizona ona, euskaldune. Ordun zapela asko ibiltzen ginun ta gurasoak erakutsi ziuten zapela kendu ta “Ave María purísima” esan behar zela apezai saldatzeko. Bazen Intzeko bat apeza ondotik pasa ta etzuna zapela altxatzen ta “Ave María purísima” esan ta harek kasoik ez!

Soldaduska non egin zenuen?

Donostin. Hoi da golferie! Lehendabiziko hiru hilabeten gimnasie ta korrika ta gero maniobrak ebai. Gerra bat tokatuko balitz nola ibili, ametralladorakin



GONBIDAPENA

Lehenengo printzean gonbidapen gabe 36 117 urte-arte dabilaz

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

Ekainaren 3tik 5era

- 3 pabiloi tematiko
- Hitzaldiak, tailerrak eta demontzako aktibitateak
- Osasun eta ongizate jasagarria
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoenkin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

Eko esperientzia bizi ezazu bioterra.ficoba.org

P donostia

Ficoba zator trecean!
Itun-Fitza gestioak
euskotren

ANTZLATAIA
FICOB
RIBA GIBELKOA
www.ficoba.org

da... Tarteka tiro ittea mendire ta bazter guzik suten jarri ta etxea! [Kar, kar, kar].

Eta gero?

Soldadu joateako etxen segan in nitzen gehiegi behartu ta soldadusken ondoren fuerte atakatu ziten. "Hernia de disco" nula ta operatu zitean. Beño seittun errekerperatu nintzen, da garai hartan ai zien gasolinera eitten.

Hori nork ireki zuen?

Hoi Julian Huartek. Arribeko semea, soldaduskean fronteran geldittue bizitzen, Dantxarinean. Lan asko iñe zen estraperloan ta gasolinera in zun. Ni hor hasi nintzen lanean 1964en ta han 36 urtean eondu naiz, jubilatatu arte. Han kanpoan hasieran ibiltzen ginen lanen Blas Ezkurdia, Juan Gorostegi ta ni. Gero beranduxeo hasi zen Rufino Ormaetxea.

Eta surtidoreak zer suposatu zuen inguruko jendearentzat?

Surtidorea oso ongi etorri zen honeako. Hasieran lokal ttiki bat zen, beño jende asko e! Hor izuarritzko lanak ein giñun da belaxen haundittu in zen. Kanpoko jende asko etortzen zen, izuarri. Kamionak e denak hemendik zien ordun. Kirolarik e bai, remontiste famatu guzik hor izau-



Joxe Antonio ezkerretik hasita hirugarrena bere senideetako batzuekin.

tu nittun nik. Han izaten giñun urdaiaz-pikoa, gazta, txorizoa ta holaxeko lau eo bost gauze. Beño haik onak e!

Festak noiz ospatzen zenituzten?

San Migeletan. Bi eo hiru eunetan, jan, edan ta dantzatu nahi zuna. Maiordomoak e izaten zien musikoai pixkoat launtzeko. Hasieran gehien ezautu giñuna izandu zien Leitzeko txistularik. Ta geo Kaxiano etortzen hasi zen. Goizetan diana jo ta geo puska biltza ethez etxe.

Ta atxaldean musike plazan.

Eta gaur egun herria nola ikusten duzu?

Etxe huts asko dao herri hotan ta pena izuarri ematen du. Oain gaztek noa o hara joan beharra due lanea, baserrin ez dao ezer itteik ta hemengo paisajeai ez bazaie launtzen dauzkazun finkak mantentzen e lana da. Launtze eman beharko lukea. Beño bizitzeko oso herri lasaie da ta gazte batzuk hoi de baloratzen due.



OHARRA: Hemendik aurrera gure aldizkarian eskualdeko euskalkia zaintzeko erronkari ekin diogu. Zure euskalkiaren inguruko ekarpenak eskertuko ditugu.

Parranda ederra kupel baten inguruan

60 lagun inguru elkartu ziren joan den hilean Beteluko ostatuan egindako barrikotean. Antolatzaileak gustora gelditu ziren gauak emandakoarekin. Sagardotegiko menua eskaini zuten gau hartan eta sagardo kupel baten bueltan txotx egiten ibili ziren bertaratutakoak. "Kriston giroa egon zen, jendea abestera ere animatu zen, trikitixa eta panderoa jotzera... Berriz ere errepikatzeko modukoa izan zen".



Sotok eta Lujanbiok girotutako bertso-afaria

60 lagun elkartu ziren joan den hilean Lekunberriko Kattagorri elkartearen bertso-afarian.

Julio Soto eta Maialen Lujanbio aritu ziren bertso librea eta ederki luzatu zen afalondorena.



Hasi da erromeri garaia

Udaberriarekin batera erromeriak hasi dira dagoeneko han eta hemen. Ohi bezala, Joxe Mari Zabaletak eman digu guztiaren berri. Apirilaren 17an, Uitziko Santa Engrazia ermitara egin zen erromeria. Jendetsua izan zen urteroko moduan eta eguraldi bikaina izan zuten. 12:30ean Meza ospatu zen Iñazio Azkoaga apezak zuzenduta. Urteroko ohiturei jarraituz, Jon Pellejero piano-jolearen laguntzarekin abestu zuen Uitziko abesbatzak. Ondoren jan-edanarekin ospatu zuten eguna.

Gure eskualdean uitziazarrak izan dira denboraldiko lehenak, baina aurki beste herri askotan izanen dira erromeriak: Maiatzaren 1ean beteluarrak San Donato basilizara joanen dira. Maiatzaren 8an, arruiztarrak Santa Luzia ermitan bilduko dira. Uztailaren 7an berriz, Azkaratekoak San Fermin ermitara hurbilduko dira. Eta abuztuaren 7an gorritiarrek Santa Barbara ermitan izanen dute hitzordua.



Aparteko kultur jarduerak Ibarberrin

Kultur Astea antolatu zuten apirilaren amaieran Lekunberriko Ibarberri eskolan. Komiki tailerra, gurasoekin partekatutako jolasak, bertsojaritza, literatur lehiaketa, hitzaldiak... Ikasleek aparteko jarduez gozatzeko aukera izan zuten. Mikel Lasartek elikagai ekologikoei dituzten ezaugarriak eta onurak azaldu zizkien, Nerea Urbizu ikastetxeko txikiak dantzari jarri zituen Ene Kantak taldearen abestekin eta Edorta de Antak Mallos de Riglosen (Huesca) eskalatzen bitzako esperientzia kontatu zien. Horra hor zenbait irudi.



Nola biziberrituko zenuke Araitz eta Beteluko kultur eskaintza?

Joan den hilean Mailope Kultur Elkarteko tailerra egin zuten Arribeko elkarteetan. Hamaika lagun elkartu ziren bertan. Orain arte Mailope elkartearen jarduna aldizkaria aurrera eramatera mugatu da eta horretarako bi talde daude, zuzendaritza taldea eta erredakzio taldea. Urteko bazkideen batzarrean ordea, elkartearen kultur jarduerak ere antolatzeko erabiltzearen aldeko interesa adierazi zuten zenbaitek. Tailerrean lehenik aldizkariaren gaineko hausnarketa bat egin zuten eta aldizkaria hobetzeko zenbait ideia bildu ziren: euskalkiaren erabilera handitzea, gaien aukeraketa, umeei tarte handiagoa eskaintzea, argazki gehiago sartzea...

Bestetik, gure eskualdean egun dauden eragileak eta antolatzen dituzten ekimenen gaineko balorazioa egin zuten. Argi ikusi zuten Lekunberri eta Larraunen gauza asko antolatzen direla eta eragile asko daudela, baina horiek guztiak agenda bakar batean bateratzeko beharra dagoela. Araitz eta Betelun aldiz, Euskara Batzarrearen eta Kultur aldiaren faltan hutsune handia sumatzen dute. Hurrengo bileraren esperoan, dagoeneko bederatzi lagunek kultur elkartearen parte hartzeko konpromisoa hartu dute.



 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA EL NIKO GAITIA - ODONTOLOGIA
Juanjo Gaitte Garcia · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



Maiatzaren 2an 25 urte bete zituen Aralar irratiak

Mende laurden honetan irratiak izan duen ibilbidearen eta bertatik pasa diren zenbait pertsonen oroitzapenak bildu ditugu.

Aralar irratiak aipatzerakoan Martin Juanena astiztarraren izena etortzen zaigu berehalakoan burura, bera izan baita 25 urte hauetan irratiak eskaini duen irratsaio nagusiko esataria, ez da ordea bakarria izan. Baina gogoratu dezagun nola sortu zuten eskualdeko udal irratiak. 1990ean Pello Argiñarena zen Larraungo Udaleko euskara teknikaria. Lekunberri oraindik Larraungo Udala osatzen zuten kontzejuetako bat zen, baina kontzejuko ordezkariak euskara teknikariarekin batera jarri zuten abian irratiaren proiektua.

1991. urteko martxoan langilea kontratatzeko deialdi publikoa egin zuten eta bailarako bi neska gazte aurkeztu ziren, Begoña Apezetxea lekunberriarra eta Alliko Abeli Zabaleta. Proba egin ondoren, epaimahaiak ez zuen bietako inor egoki ikusi lanpostu horretarako eta bigarren deialdi batean Atalluko Fernando Elorza eta Iruñeko Bixente Setoain aurkeztu ziren. Elorza euskaldun zaharra zen eta bertako euskaran aritzen zen, Setoainek aldiz kazetaritza ikasketak amaitu berri zituen eta euskara batuan egiten zuen. Azkenean, Setoain kontratatu zuten eta 1991ko maiatzean hasi zen irratsaioa emititzen. Handik hiru hilabetera ordea, Setoainek berak uztea erabaki zuen, ez zuelako entzuleak behar bezala erakartzea lortzen.

Abelik 16 urte baino ez zituen orduan, ikasten zebilen oraindik, baina uda zenez bera aritu zen pare bat hilabetez. Irailaren amaieran Martin Juanena sartu zen arte. Martin: "Jose Antonio Goikoetxea zen irratiako arduraduna eta egun batean nigana etorri zen azalduz irailean Abeli berriz ere ikasketekin hastearekin batera esataririk gabe gelditzera zihoazela. Nigan pentsatu zutela esan zidan, hitz egiteko erraztasuna nuela, etorria banuela eta inguruko jendea ezagutzen nuela. Ni

irratizale ikaragarria nintzen, baina baxerrian aitak eta biok 40 behi genituen eta han lana banuen. Nahikoa buruhauste izan nituen erabakia hartzen”.

Irailaren 23an hasi zen Martin irradian, probarik egin gabe, zuzenean mikrofono aurrean jarri eta bere kabuz ikasiz, “Abelik asko lagundu zidan, berak erakutsi zidan soinu mahaia erabiltzen. Lehenengo urteak Lekunberriko kontzeju etxeko bigarren solairuan zegoen estudioan egin genituen, musika bini-loekin eta compact disk zahar batzuk jarritz. Ordenagailua jarri genuenean lan egiteko modua zeharo aldatu zen”.

Gaur egun goizeko 10:30ean hasten da irratsaioa eta eguerdiko 14:30ean amaitzen da. Egunkarietako azalean kaleratzen diren eguneko albisteen errepasoa, eguraldia, bertako albisteak, elkarrizketa nagusia, zorion agurrak, bizilagunen heriotzen berri ematea...



Lekunberriko Kontzejuak sortutako proiektua izan arren uhina Betelu, Larraun eta Araizko herri guztietara iristen al zen hasieratik?

Martin: Bai, bai. Gainera Araitx eta Betelun entzule ikaragarriak izan ditugu betidanik, baita Larraunen ere. Irratia Lekunberrin kokaturik dago eta hara non hemen du audientzia gutxien.

Irratsaioa hasieratik euskara hutsean izan da. Noizbait eztabaidarik sortu du hizkuntzak?

Martin: Bai, bai. Irratia sortu zenean, Kontzejuan zeuden zinegotzien erdiak euskara hutsez egitearen aldekoak ziren eta beste erdiek bi hizkuntzatan egitea defendatzen zuten. Pello Argiñarenak sutsuki defendatu zuen euskararen alde egin beharreko apustua eta azkenean hala erabaki zuten. Geroztik beti egon dira gai horrekin haserre ibili direnak, euskaraz ez dakitenek zergak berdin ordaintzen dituztela eta eurek ere irratia zerbitzuaz gozatzeko eskubidea dutela defendatzen dutenak. Batzuk baikortasunez ahalegindu izan dira irradian ahal zuten moduan euskaraz parte hartzen Merceditas Etxarriren moduan eta beste batzuk aldiz telefonoz haserre bizian deitzen zuten: “¿Podrías repetir lo que has dicho en castellano, por favor?”. Ez ziren trago

errexak, baina beti egin dugu euskararen alde.

Ekonomikoki zer moduz moldatu zarete urte guzti hauetan?

Martin: Hasieran Edurne Agirrezabalak egindako lanari esker, publizitatearekin diru-sarrera bat izatea lortzen genuen. Baina arazo bihurtu zen, publizitate asko kanpotik sartzen hasi zelako. Bertako dendarien kaltetarako zen kanpoko dendariei publizitatea egitea. Hori dela eta Udalak publizitatea alde batera uzteko erabakia hartu zuen. Baina garai haietan ez zen diru arazorik izaten. Sari potoloak zozketatzen genituen irradian eta entzuleen aldetik parte hartze handia lortzen genuen. Pentsa! Behin Santo Domingorako bidaia bat ere zozketatu genuen. Gainera, bai Nafarroako Gobernutik eta baita Eusko Jaurlaritzatik ere diru-laguntzak jasotzen genituen eta ekonomikoki ez genuen buru hausterik izaten. Gero Eusko Jaurlaritzak udalarenak ziren hedabideak laguntzeari utzi zion eta handik gutxira Nafarroako Gobernuak ere diru-laguntzak bertan behera utzi zituen. Oso urte gorrak izan dira azken hauek. Hasieran Lekunberriko Udalak bakarrik ordaintzen zuen irratia kosta, baina gero gainontzeko hiru udalek Euskara Zerbitzuaren bitartez euren ekarpena egiten

hasi ziren. Hala ere, gaur egun oraindik ere kostearen zati handiena Lekunberriko Udalak hartzen du bere gain.

Goizetan zuk gidatzen duzun saioaz gain, inoiz ez duzue pentsatu bestelako saioak sortzeko aukeraren gainean?

Martin: Garai batean ostiral arratsaldeetan gazteek irratsaio ederrak egiten zituzten. Musikarekin lotutakoak izaten ziren batez ere. Hemen ibili ziren Gorka Urbizu, Aitor Goikoetxea eta beste zenbait gazte. Eta larunbatetan haurrentzako programak ere egiten ziren. Gaur egun ez da horren erraza boluntario arituko den jendea topatzea. Eta haurrengana iristea ere uste dut lehen baino zailagoa dela orain. Ostiralero abendutik otsailera bitarte Ibarberri eskolako ikasleak etortzen dira eta saio oso politak egiten ditugu, baina horrez gain zaila egiten zaigu umeak erakartzea.

Audientziari dagokionean, gorabeherak izan dituzue?

Martin: Bai. Duela hamabost bat urte izugarriko audientzia gorakada izan zen. Eta azken urte hauetan behera egin du. Egun zaila da goizeko 10:30etatik 14:30etara jende gaztea etxean harapatzea, eta gaztea diodanean 50 urtetik beherakoez ari naiz. Gehienak etxetik kanpo lanean edo ikasten dabilta eta



Lehiaketek eta zozketek jarraipen handia izan dute beti entzuleen artean.

- 24 -

tarte horretan dugun audientzia oso jende helduarena da.

Baina entzule horiek eskertuko dute...

Martin: Bai, bai. Asko eskertzen dute, irratia eguneroko konpainia bihurtzen da askorentzat. Baina uste dut jendeak gehiago aprobetxatu beharko lukeela halako irratiko estudio bat. Herritarrek edo talde eragileek tarteka saio bereziak eskaini etab. Udal ordezkariak ere hauteskunde garaitik kanpo oso gutxitan etortzen dira eta herritarrei informazioa emateko tresna interesgarria da beraiantzat. Askori iruditzen zaie goizetako irratsaioaren bitartez adineko jendeari baino ez zaiola iritsiko informazioa, baina askotan aiton-amonak

izaten dira gero etxekoei horien berri ematen dietenak. Hala ere, badira irratira maiz etortzen direnak ere, Alfredo Dufur, euskara teknikaria, losune Zabala, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria... Aitor Irastortza orain kanpoan dabil baina horrek ere askotan bisitatzen ninduen, baita Ruben Goñi, kirol teknikari ohiak ere.

Urte batzuetan sarean ere emititzen zenuten saioa...

Martin: Hala da bai. Hamar urtez egon ginen sarean Beleixe eta Esan Erran Irratiekin batera. Argia aldizkariak Merzimenduzko saria eman zigun egindako lanagatik. Gero krisiarekin eta gobernuen diru-laguntzarik gabe Beleixe

eta Esan Erran irratiek ez zuten aurrera egiterik izan eta itxi egin zituzten. Gaur egun hiru ordu laurden ematen ditugu Karrape irratiarekin batera.

Eta 25 urte hauen ondoren, zein da egiten duzun balorazioa?

Martin: Nik udalei eta batez ere Lekunberrikoari, eskerrak eman behar dizkiot, krisi garai gogorrenetan irratia eusteko egindako ahaleginagatik. Eta bestalde, oso gustora ibili naiz urte guzti hauetan. Dagoeneko 56 urte ditut, baina jarraitzeko gogoarekin. Maiatzaren 28an bazkaria egingo dugu Kattagorri elkarrean eta urte guzti hauetan irratian ibili diren lagunuen artean ospatuko dugu.

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
638557889

BETELU
PNEUMATIKOAK

TAILER MUGIKORRA

NEUMATIKO ALDAKETA
ZULATZEEN KONPONKETA

Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

Kolaboratzaile eta langile asko izan ditu Aralar Irratiak

Gertuko informazioa ematea du helburu Martinek eta horretarako kolaboratzaile eta langile finak izan ditu urte guzti hauean. Martin: "Ni irratan hasi eta pare bat urtera Edurne Agirrezabala hasi zen nirekin batera lanean. Izugarrizko lana egin zuen Edurnek hemen, egitura bat sortu zuen lanerako. Gaitasun handia zuen programak sortu eta jendearekin harremanetan jartzeko. Bi bailaretako herri bakoitzean berriemaileak aurkitu zituen". Ez da orde, bertan ibilitako bakarra, Abeli Zabaleta, Urko Aristi, Juan Antonio Garaikoetxea, Aner Ansorena, Veronica Satrustegi... Horietako batzuen oroitza penak bildu ditugu.

Juan Antonio Garaikoetxea

"1992an Sevillan Expo92 egin zuteanean Martin hara joan zen eta hemen utzi ninduen astebetean. Ni eta Abeli ibili ginen irratsaioa zuzentzen".

Abeli Zabaleta

"Ni ez naiz ongi gogoratzen nolatan ibili nintzen irratan. Probaren bat egin nuen eta urte hartan UEUko ikastaro bat egitera bidali ninduen Pellok. Gogoan dut Juan Antonio Garaikoetxearekin ibili nintzela eta sukaldaritzari buruzko saio txikiren bat egin genuela. Jendeari urtebetetzeetako agurrak eta egiten genituen jokoak gustatzen zitzaizkion gehien.

Garai batean, Ezkurrako neska batek

eta Uitziko beste neska gazte batek musika heavy-ari buruzko programa bat egiten zuten. Aralar Irratia utzi ondoren beste hiru urte eman nituen Leitzako Karrape irratan. Oroitzapen onak ditut hemen ibili nintzen garaiaz, Feliciano Buldainen oraindik ere ikusten nauen bakoitzean gogorarazten dit [Kar, kar, kar]".

Edurne Agirrezabala

"Publizitatea eta Harreman Publikoen ikasketak bukatu eta gutxira irratan lan egiteko aukera atera zen. Kontzejak deitu zuen lehiaketara aurkeztu eta ni hautatu ninduten. Ilusio handiarekin hasi nintzen. Ni ez nintzen kazetaria eta horregatik batez ere lau orduko irratsaioa egiteko atzetik egin beharreko lana egiten saiatu nintzen. Besteak beste, eskualdeko herri bakoitzeko kolaboratzaile bat aurkitu nuen tokian tokiko albisteen berri izateko. San Migelen lanean zebilen Joxe Mari Zabaletarekin ere astean behin elkarrizketa bat egiten genuen. Xorroxin Irratiarekin eta Euskalerrira irratiarekin elkarrizketak egiten genituen eta Argia aldizkariarekin ere elkarlanean aritzen ginen. Martin esatari lanetaz arduratzen zen eta ni erredakzio lanaz. Mahai-inguruak ere egiten genituen entzuleek parte hartu zezaten, gai bat aurkeztu eta Martinek iritzi bat ematen zuen, nik beste bat eta jendea telefonoz sartzen zen. Nire ustez familia handi bat sortu zen irratico entzuleen artean, gainera bi bai-

laretako jendearen arteko harremana estutzea lortu genuela uste dut".

Urko Aristi

"Eskola handia izan zen hura niretzat. Egutero lau orduko irratsaioa bakar bakarrik egin beharra ez da batere erronka makala. Baina gustagarria ere bai. Berez Euskara Zerbitzuak antolatutako irrati tailer batean hasi nintzen. Hura gustatu, eta Saloa Sarasa, Ainhoa Iriarte eta hirurok saio bat egiten hasi ginen larunbat goizetan. Astero saiatzen ginen pertsonaia ezagun bat elkarrizketatzen. Lehenengoetakoa Anne Igartiburu izan zen... Goenkaleren fenomeno ere hasia berria zen eta bertako protagonista gehienak elkarrizketatu genituen. Horrela eman genuen ikasturte guztia, eta uda heldutakoan ea oporretako ordezkape- nak egingo nituen, eta nik baietz!

Bi kontu ditut bereziki gogoan: Alde batetik haurrekin egiten nuen tartea. Zail xamarra izaten zen, hitz gutxikoak zirelako, baina nahiko bizia geratzen zen.

Eta bestetik, entzule fidelenek zenbat laguntzen ninduten. Asko ziren, baina ezin aipatu gabe utzi Feliziano, Karmen, Maria Jesus... Araizko kontuak kontrolpean nituen, baina Larraungoekin nahiko berde, eta beti zeuden prest laguntzeko eta zuzentzeko. Kariño horrekin gogoratzen ditut guztiak".



Entzuleak izan dira Aralar irratico protagonista handienak eta beraiekin ospatuko dute 25. urteurrena.



Huizi aita-alabak Boleibolean

Pasa den apirilaren 9an, Iruñeko Larrabide estadioan, boleiboleko Nafarroako Kirol Jokuen finala jokatu zuten Ibararte eta Navarvoley B taldeek. Ibarartek 3-1 irabazi zuen. Talde horretan Lekunberriko bizilagunak diren Huizi-Rayo familiako aita-alabak dabilta: Lorena Huizi jokalaria da, eta Uxua eta Jose Angel Huizi lehenengo eta bigarren entrenatzaileak dira. Gainontzeko jokalaria Iruñea eta Zubirikoak (Esteribar) dira. Zorionak!

Zilarra eta Urrea judoan

Plazaola Judo Taldeko lau kidek joan den hilean jokatu zen Nafarroako Kirol Jokoen txapelketan parte hartu zuten. Olatz Iribarren kadeteen kategorian aritu zen, Ainhoa Saralegi Infantilen kategorian eta Amaia Saralegi eta Jone Alsua alebilen kategorian. Ainhoa Zilarrezko domina eskuratu zuen eta Amaiak urrea. 2006an sortu zen taldea eta ikasturte honetan 5 eta 10 urte arteko 17 ikasle dabilta maila baxueneko klaseetan eta maila aurreratuagoko klasean berriz 11 eta 41 urte arteko 14 lagunek entrenatzen dute. Miguel Inda entrenatzaileak oso positiboki baloratu du lortutako emaitza eta baita orokorrean ikasturte honetan egiten ari diren lana ere.



Rogaine orientazio probaren aurkezpena

Europako Rogaine Orientazio Txapelketa jendaurrean aurkeztu zuten joan den hilean Plazaolako turismo bulegoan. Aralarren, datorren abuztuaren 27an eta 28an egingo den 13. edizioaren nondik norakoak azaldu zituzten. Distantzia luzeko 24 orduko proba izanen da. Dagoeneko ia 350 lagunek eman dute izena eta gehiago espero dituzte. Gainera horietatik erdiak atzeritarrak izanik parte hartzaileei eta eurekin etorriko diren kideei eskaintzeko egonaldiak eta jarduerak prestatzen dabilta antolatzaileak buru-belarri.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

AMARU BAR
ETIKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK
948504352

Kantina Rock
948
60
48
21
KANTINA
bokatak, platerak eta...musika

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz
Lontxo Otamendi Artola

Errenta aitortpena euskaraz

Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Udalek, aurtengoan ere errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiatu dute. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen ekimena da eta kide diren udalez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak eta kide ez diren beste zenbait udalek ere parte hartu dute. Gure kasuan, Betelu eta Lekunberriko Udalek, kide ez izan arren, bat egin dute.

Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezen bultzatzea da helburua. Errenta aitortpena euskaraz eginez, euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen dela defendatzen du UEMA-k. "Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko euskara eremu guztietara hedatu behar da eta horretarako, garrantzitsua da herritarrek euskaraz osotasunean bizitzeko hautua egitea. Udalerrri euskaldunetako herritarrok eredu eta aitzindariak izan gaitezke horretan".

Errentaren gaineko aitortpena egiterako orduan, zergadunek zenbait aukera dituzte euskaraz egin ahal izateko eta hasieratik hizkuntza aukeratzeko orduan ez dago euskaraz egiteko inolako zailtasunik. Jasotako datuen arabera, geroz eta herritar gehiagok egiten dute euren errenta aitortpena euskaraz. Euskararen normalizazioaren bidean aurrera pauso bat da.

2016an Errenta aitortpena Euskaraz

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA:

- Jasotako proposamenei buruzko ereduak, errenta ez egin nahi dutako ereduak eta errenta aitortpena euskaraz egiteko ereduak.

MEKANIZATUA:

- Hizkuntza harteraketa, adieraz ezazu. Ogasunaren harremanak euskaraz izan nahi dituzte.
- Ogasunaren aurretik gutxiak harremanak, nahi izanez gero Internet bidezkoak euskaraz izan ditzakete, harreman eskaintza berria.
- Ogasunak sinisteko ereduak dituzten eredu euskaraz jaso dezakete.

INTERNET BIDEZKOA:

- Errenta programaren euskaratzea berriz jarduera informatikoa eta teknologikoa berriz euskaraz egiteko.
- Errenta aitortpena euskaraz egiteko ereduak euskaraz egin nahi dituzte.
- Beste modu batzuen ereduak (errenta aitortpena ereduak, adibidez), euskaraz egiteko ereduak.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Asteleheneretik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

ETXEZ ETXEKO EGUR SALMENTA

IRTE OSOAN ZEHAR

EGURRA EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

“Landetxea, toki ezberdinetan turismoa egiteko abiapuntutzat izaten dute askok”

Miren Oterminek eta Iñigo Garmendiak 2009an ireki zuten Olano landetxea, Errazkin.

Etxe hau zuena zen? Nola hasi zineten proiektu honekin?

Miren: Nik gurasoak Errazkingoak ditut, aita Zamargiñenekoa eta ama Etxeberrikoa. Etxe hau berez Zamargiñenekoa zen, aitarena. Eraikina hutsik zegoen, garaje zahar bat zen. Biok etxetik kanpo lanean gabiltzan arren, nik aspalditik nuen landetxe bat jartzeko gogoia eta aitarekin hitz egin eta aukera ona iruditu zitzaigun.

Iñigo: Etxearen eraikuntza lanak urtebetean egin genituen eta 2009ko Aste Santuetan ireki genuen landetxea.

Landetxea egiteko gomendio bila ibili zineten?

Miren: Bai, guri Gaintzako Kristina As-

karaik asko lagundu zigun. Bere landetxean izan ginen eta aholku asko eman zizkigun. Oso ongi portatu zen.

Etxea logelaka eskaini beharrean osorik eskaintzearen aukera hasieratik al zenuten argi?

Iñigo: Bai. Guk bezeroei giltza eman eta joaten den arte ez genuen lan gehiagorik hartu nahi.

2009ko apirilean ireki zenuten... Zer moduzko izan zen hasiera?

Iñigo: Oso ona. Hasieran mugimendu dexente egon zen.

Miren: Garai hartan, krisiak oraindik ez zuen goia jo. Aste Santuak, Egube-



rriak, Zubiak eta uda izaten dira gararik emankorrenak. Orain mugimendu gutxiago dugu, azkeneko hiru urteotan batez ere asteburuetak eskariak asko jaitsi dira.

Eta ze profileko jendea etortzen da?

Miren: Familiak izaten dira, euren seme-alabekin etortzen direnak. Koadri-lan gutxi etortzen dira.

Nongotarrak izaten dira?

Iñigo: Kataluniakoak, Zaragozakoak, EAE, Errioxa, Madril... Andaluzia aldetik ere etorri izan dira. Baditugu bezero



batzuk ireki genuenetik ia urtero etor-
zen direnak.

Zeren bila etortzen dira?

Iñigo: Nafarroa eta Gipuzkoa artean da-
goen leku bat delako etortzen dira asko.
Kokapenagatik.

Miren: Normalean honera etortzen dire-
nak ez dira etxean sartuta geldituz diren
horietakoak. Etxea gehienbat alde batera
eta bestera antolatzen dituzten irteeren
abiapuntu bezala hartzen dute. Askok goi-
zean irten eta gauean bueltatzen dira. Ne-
guan, aldiz, asteburu bakar bat pasatzera
datozenak gehiago aprobetxatzen dute
etxea eta sutondoa eta lasaitasuna izaten
da gehien baloratzen dutena.

Iñigo: Eguberrietako bezeroak fami-
liarekin etxetik kanpo elkartzeagatik
etortzen dira eta normalean hurbile-
koak izaten dira, Donostia aldekoak...

Jendearekin harremanetza gustoko duzue?

Iñigo: Nik bai. Nire lanean harreman-
etza tokatzen zait eta ohituta nago.

Miren: Gainera ostatu mota hauetara
etortzen diren pertsonak oso atseginak
izaten dira. Gure kasuan behintzat, oso
jende gutukoa eta xaloa izaten da.

Lan handia izaten da zuentzat hemen- go martxaz arduratzea?

Miren: Ditugun beste betebeharrak
kontutan hartzen baditugu bai, lana da.
Hiru solairu dira eta bezeroak joaten di-
renean dena goitik behera garbitu be-
har da eta horrek denbora eskatzen du.
Horretan eskertzekoa da nire gurasoen
aldetik izaten dugun laguntza.



Ezustekorik izan duzue inoiz?

Miren: Jendeak orokorrean etxea oso
ongi zaintzen du. Behin ustekabeko bat
izan genuen. Familia bateko 14 bat ur-
teko semeak sofa gainean saltoka sofa
hautsi zuten. Baina gainontzean ez
dugu inoiz arazorik izan.

Eta anekdota berezirik?

Miren: Errazkingo festetan Peñiskola
aldeko batzuk etorri ziren eta herrian
guztiz integratu ziren. Errazkingo festak
ziren eta festetako jarduera guztietan
parte hartu zuten. Puska-biltzan ere
parte hartu zuten. Landetxeko atea
ireki eta euren herriko platerak presta-
tu zituzten.

Herrian dagoen landetxe bakarra da?

Miren: Bai.

Baina inguruko herri gehienetan ere badira landetxeak...

Miren: Bai, baina hori ez da kompeten-
tzia. Alderantziz, geroz eta jende gehia-
go etorri inguru hauetara, orduan eta
ezagunago egingo da. Gainera landetxea

beterik izanez gero albokoarenera bi-
daltzeko ohitura izaten dugu. Niri pena
ematen dit ingurune hau, orokorrean,
nahiko ezezaguna dela ikusteak. Honera
iristen direnean jendea iruzgarri gusta-
tzen zaio ingurunea eta pena da turis-
tikoki gehiago ezagutzera ez ematea.

FITXA:

Olano Landetxea

Pertsona kopurua: 7

Hiru solairuko etxea:

Aisialdirako txokoa

Komun bat

Bi bainugela

Sukaldea eta jangela

Lau logela

Harremanetarako:

609 560 798 / 636 121 707

olanolandetxea@hotmail.com

*Lagundu
Mailope!*

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net



GARAZ Zure baitan eta onategira moldabuko gara

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika Inglesa
lengua kimika 948 504 450

marrazketa teknikoak 64825352

euskera historia
unibertsitate mailako ikasgaiak

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·

PATXI GALARZA

Astelenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34

INFORMATIKA ARALAR

LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN

DOCUMENTALAK KONPONTZEA

634 551 743

infoaralar@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31

Lekunberri



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean

Naroa Elordi Ilarregi
Maiatzaren 11an, 5 urte.
Zorionak koxkorra!! Ongi
pasa zure urtebetetze
egunean.
Muxu handi bat familia
guztiaren partez.



Araika Etxarri Urbizu
Maiatzak 6, 4 urte.
Jada lau urteko neskatxa
gure Araika! Mila kilo
zorion polittena! Enara,
aita ta ama.



Nikolas Becares Bachilieri
Maiatzak 18, urte 1.
Zorionak politta!!
Ongi pasa zure urtebetetzean.
Muxu bat etxeko guztien
partez. Aitatxo, amatxo eta
Luana.



**Onofre Iriarte (Maiatzak 17)
eta
Amaia Iriarte (Maiatzak 19)**
ZORIONAK BIKOTE!!!! Ondo
pasa eta bizkotxo goxo goxo
egin. Muxu haundi bana
Elene, Aner, Danel eta
Arribeko familiaren partez.
Naroa eta Maren.



Alaitz Olano
Apirilak 25.
Zorionak polittena!!
Oso ongi pasa egune ta ospatu behar
den bezela!



Gurutze Otamendi
Maiatzak 3, 56 urte.
Muxu haundi bat, munduko amatxorik
eta amonarik goxoen zarelako!!!! Urte
askotarako!!



Jakes Iturrioz Cruz.
Maiatzak 11, 7 urte.
ZORIONAK JAKES!!!
Asko maite zaitugu denok!
Ondo-ondo pasa zure egunean!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

maiatza

- 13** "Kriseiluen Gau Magikoa" 21:30ean Lekunberrin eta Azkaraten.
- 14** Bertso-afaria Azkarateko Balerdi elkar-
tean, Julio Soto eta Jexux Mari Irazurekin.
Txartelak salgai Beteluko Ostatuan eta
Arribeko Surtidorean.
- 20** Beltzean Mintzo dokumentala eta solasal-
dia, 19:00etan Lekunberriko udal aretoan,
Garabide elkartearen eskutik.
- 26** Txokolipuinak Haur Hezkuntza 3, Lehen
Hezkuntza 1 eta 2 hurrekin (5-7 urte).
Mitxausenean 17:00-18:00 bitarte.
- 28** UEMA eguna Leitzan

merkatu txikia

SALGAI

- VPO pisua salgai Atallun.
Bizitzera sartzeko prest.
90 m2ko bizitza, garajea
eta trasteroa. 115.000€.
646179746 (Miren).

Aurtengo intxaurrak salgai!
636856801 (Itziar)

ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Bete-
lun, bizitzera sartzeko prest.
80m2-ko pisua altzariz
hornitua.
690006283 (Mila).

Bajera bat alokatzen da
Betelun. 690006283 (Mila)

LAN BILA

- Lekunberrin emakume
bat prest edozein lanetan
aritzeko: etxeko lanak, per-
tsonen zainketa, etxebizitzan
garbiketa etab.

Emilia Dimitrova:
948 60 48 93 / 679 053 368.

Lekunberriko neska gaztea
ekainean eta uztailean
zehar haurren zainketa lan
egiteko prest!
Harremanetarako:
608 206 338

ADI!

Merkatu Txikian iragarki
bat jarri nahi baduzu idatzi
mailope@labrit.net-era.

MAIATZAN KULTURA 2016				KARTEL & ANER ANDREINA
GRAFITI TALERRA Maiatz amaieran, bi egun 12-16 urte Gizarte eta Euskera Zerbitzuak.	6 Komunikazio ARALAR MUNDUA ETSOKA TALDE INSTRUMENTALAK Cocherito Kantina 20:00	7 LARRAINGO ELIZA IOLESIAS LARRAUN 94 804 500	8 HERRI URKATZ autobus HERRI URRATS	
12 EBKOLAND ANTZERKIA OBH eta 2ko. 4. eta 5. egun	13 HERRI ¿QUE ES LA BANCA ÉTICA? ¿ZER DA GIZARTE BANKUA? Dokumentala Udal Aretoa 19:00	14 LEKUNBERRIKO KOROA CORDO DE LEKUNBERRI Saraibar 19:30	15 LA CHULA POTRA Kantina 20:00	
19 Literatur Solasaldia KABIER MENDIGUREN Mitxausenea 18:30	20 Dokumentala eta dokumentala "BELTZEAN MINTZO" Euskara, Euskal Herria munduan Udal Aretoa 19:00	21 IBIALDEA. LEKUNBERRIKO BARRIO BERRIEN BARRIOA Gure inguruan begira: dizitalogun begi bezi Udal Aretoa 11:00	22 VI. Angerri Baitze Lekunberri Larrak VI. Angerri Baitze Mitxausenea 10:00	
	27 DINA Amara Aizatz 20:00	28/29 MERKATU MERCADO Frontoian egut osoa	29 BENDI BERRIA BALEIA AL MONTE Tutture	

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpiak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 31870 Lekunberri 948.60.48.06 Inlgo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta
Diario de Navarra
Korrespontsala

948513056
699179437

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Erosi zeurea
12 euroren
truke!

ENE KANTAK

Oneka Marrazoaren
ikuskezuna orain DVD-an.

Mailope aldizkariaren aldeko
proiektua.

Informazio gehiago: www.enekantak.com